



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 7a

5. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio-ko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena ([2. or.](#)).
- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa. Akats zuzenketa ([6. or.](#)).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du ([7. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2007ko urtarrilaren 29an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2007ko otsailaren 26ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.a) artikuluan ezartzen da Nafarroak, bere foru eraentza dela-eta, eskumen eskusiboa duela erregulatzeko, besteak beste, foru erakundeen osaera, eskurantzak, antolakuntza, funtzionamendua eta araubide juridikoa, bai eta Foru Diputazioaren, haren Administrazioaren eta haren menpeko entitate publikoen araubide juridikoa ere.

Hasiera batean, goi karguen bateraezintasunen araubidea Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 27., 40. eta 47.2 artikuluetan arautu zen, Gobernuko lehendakaria, kontseilariak eta zuzendari nagusiak soilik aipatuz.

Eskumen horretaz baliatuz, apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 27. artikulua espresuki indargabetu zuen azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea onetsi zen, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa, bateraezintasunaren araubidearen gaineko arautzea osotua biltzen duena; lege horren xedapenek erregelamenduzko garapena izan dute honakoen bidez: 2/1997 Foru Dekretua, urtarrilaren 7koa, Nafarroako Gobernuko eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi kargudunen jarduera eta interesen Erregistroaren jardunbidea arautzen duena, eta 1/1997 Foru Dekretua, urtarrilaren 7koa, Nafarroako Gobernuko kideen eta

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioi goi kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean aipaturiko zehapen prozeduraren Erregelamendua onesten duena.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 31. artikulua xedatzen du lehendakariak bere kargua uzten duenean eskubidea izanen duela, besteak beste, erregelamenduz erabakiko den prestazio ekonomikoa izateko. Era berean, lege testu horren 42.2 artikulua ezartzen du erregelamenduz arautu behar direla kargua uzten duten kontseilarien eskubideak.

Lege aurreikuspen horiek garatzeko Nafarroako Gobernuko lehendakari-ohien eta kontseilari-ohien estatutua arautzen duen abuztuaren 14ko 180/1984 Foru Dekretua onetsi zen, 3. eta 6. artikuluetan karguak utzi ondoren jaso beharreko prestazio ekonomikoak arautzen dituena; foru dekretu haren edukia ekainaren 19ko 143/1995 Foru Dekretuak, azaroaren 18ko 266/1998 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 12ko 7/2004 Foru Dekretuak aldatu zuten.

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2004ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, ponentzia bat sortzea erabaki zuen, garai hartan goi karguen bateraezintasunen arloan indarra zuen legeriaren aplikazioari eta haren erreforma eta garapena egiteko aukerari buruzkoa. Batzordeak 2004ko azaroaren 23an onetsi zuen Ponentziaren txostena, zeinak amaieran proposatzen baitu azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea hein batean aldatzea, xede hauekin: goi karguen erregistroan bi atal sortu eta bertan dauden datuak eskuratzeko araubidea aldatzea, kargu-uzteen ordainsariak jasotzeko eskubidea duten karguak eta ordainsari horien zenbatekoa zehaztea, eta aplikazio esparrua zabaltzea Nafarroako Foru Komunitateren sektore publikoaren parte diren entitateetako kargu exekutiboetara, erregelamenduz ezarriko diren kasuetan.

Parlamentuko Ponentzia horren txostena egin ondoren, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea onetsi zen, eta bertan xedatu Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta kontseilarien bateraezintasunen araubidea foru lege zehaztu eta arautuko dela.

Ponentziaren txostena egin ondoren, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea onetsi da; VIII. Tituluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde auto-

nomoen erakunde publikoak eta menpeko bestelako entitateak arautzen ditu, besteak beste, erakunde autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sozietate eta fundazio publikoak. Legearen laugarren xedapen iragankorrean, berriz, ezartzen denez, harik eta Nafarroako Ondareari buruzko foru legeak sozietate publikoen kontzeptua arautu arte, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legean horri buruz ezarritakoa aplikatuko da.

Azaldutakoari jarraikiz, bidezkoa da azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen edukia aldatzea, xede hauekin: aplikazio esparrua zabaltzea, sozietate eta fundazio publikoaren kontzeptuak foru lege honen ondorioetarako zehaztea, goi kargudunen jardura eta interesen Erregistroa bi ataletan antolatu eta haietako bakoitzeko datuak eskuratzeko araubidea aldatzea, eta goi kargua utzi ondoren aplikatu beharreko araubidea, egoera horretan jaso beharreko ordainsarien zenbatekoa eta onuradunak ezartzea.

**1. artikulua.** Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioi goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 2., 4., 7. eta 9. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzea.

1. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 2. artikulua aldatu da. Hauxe da testu berria:

“2. artikulua. Goi karguaren definizioa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek dira goi karguak:

a) Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta kontseilariak.

b) Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta kontseilarien kabinetetako kideak.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioi zuzendari nagusiak eta maila organiko horretako postuen titularrak.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde publikoetako lehendakariak, zuzendari kudeatzaileak eta izendapen libreko lanpostuen titularrak, salbu eta nahitaez funtzionarioek bete behar dituztenak.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoetako sozietate publikoen zuzendari nagusiak, zuzendari kudeatzaileak, zuzendari exekutiboak, kontseilari delegatuak eta parekatuak.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen fundazio publikoetako lehendakariak, zuzendariak, kudeatzaileak, administratzaileak eta parekatuak, kargu horietan aritzeagatik lansari finko eta aldizkakoak jasotzen badituzte.

g) Nafarroako Irrati-Telebista entitate publikoaren zuzendari nagusia.

h) Behin-behineko beste langile oro, foru araudiarekin bat.

2. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen sozietate eta fundazio publikoak dira Nafarroako ondarea arautuko duen foru legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean zehazten direnak, hurrenez hurren.”

2. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 4. artikuluko d) letra aldatu da, honela gelditu baita haren testua:

“d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari izatea erakunde publikoen, fundazio publikoen edo sozietate publikoen eta sozietate pribatuen zuzendaritza organoetan edo administrazio kontseiluetan, bere kargua dela eta edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzen duen entitateetan beroriek izendaturik.”

3. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 7. artikulua aldatu da, honela gelditu baita haren testua:

“7. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu eta Administrazio goi karguen jardueren eta interesen Erregistroa.

1. Foru lege honetan xedatutakoa bete dadin sortu da Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu eta Administrazio goi karguen jardueren eta interesen Erregistroa.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu eta Administrazio goi karguen jardueren eta interesen Erregistroak bi atal izanen ditu:

a) Jardueren Erregistroa: publikoa izanen da eta bertan inskribatuko dira foru lege honen 11. artikuluan aipatzen diren adierazpenak eta egintzak.

b) Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroa: erreserbatua izanen da, eta bertan inskribatuko dira foru lege honen 12. eta 13. artikuluetan aipatzen diren adierazpenak eta egintzak.”

4. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 9. artikulua aldatu da, honela gelditu baita haren testua:

“9. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu eta Administrazio goi karguen jardueren eta interesen Erregistroko datuak eskuratzea.

1. Jardueren Erregistroa publikoa da eta bertako datuak eskuratzeko bidea honakoetan xedatutakoari lotuko zaio: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua; foru lege hau eta aipatutako arauak garatzen dituzten arauak.

2. Jardueren Erregistroko datuak eskuratzeko eskubidea idatziz eginen zaio Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari, argi azalduz zein den goi kargua, zein datu eskatzen diren eta eskaeraren arrazoia. Jardueren Erregistroko datuak eskuratzeko araudia betetzen dela egiaztaturik, datuak berehala igorriko dira, haien segurtasuna bermatuta.

3. Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroa erreserbatua da, eta bertako datuak eskuratzeko eskubidea honako hauek izanen dute soilik, interesatuaz gain:

a) Nafarroako Parlamentuak, bere Erregelamenduak ezartzen duenari jarraikiz, eta Comptos Ganberak, hura arautzen duen foru legeak ezartzen duenari jarraikiz.

b) Auzitegiko organoak, Erregistroan diren datuak ezagutzea beharrezkoa denean prozesuen instrukzioa egiteko edo ebazteko, prozedura-legeetan xedatutakoari jarraikiz.

c) Ministerio Fiskalak, bere eginkizunak betetz, Erregistroko datuak ezagutzea beharrezkoa duten ikerketa lanetan ari denean.”

4. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria aldatu da, honela gelditu baita haren testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Enpresa-entitate publikoen, sozietate publikoen eta fundazio publikoen betebeharrak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen enpresa-entitate publikoek, sozietate publikoek eta fundazio publikoek Erregistroa kudeatzen duen organoari jakinaraziko diote zein lagun hautatu eta izendatzen dituzten zuzendaritza organoetarako, foru lege honetako 2. artikuluan jasotakoan artean badaude, bai eta foru lege honetako 5.1 artikuluan adierazitako kontzeptuengatik esleitutako ordainsariak ere.”

**2. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari artikulua berri bat, 3bis, gehitzen zaio.

Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari 3. artikuluko 4. idatz-zatia kendu eta artikulua berri bat, 3bis, gehitzen zaio. Hauxe da haren edukia:

“3. bis artikulua. Kargua utzi ondoren goi karguei aplikatu beharreko araubidea eta ordainsariak.

1. Kargua utzi eta hurrengo bi urteetan, goi karguek ez dute jarduera pribatuetan aritzerik izanen, jarduera horiek zerikusia baldin badute kargua betetzen ari zirela haiek ebatzitako espedienteeekin; era berean, ezin izanen dute laguntza tekniko kontraturik izenpetu administrazio publikoekin, ez eta zerbitzuekin edo antzekorik ere.

Foru lege honen aplikazio esparruan sartutako goi karguetakoren batean aritutako pertsonak etorkizunean beteko duten jarduerari buruzko jakinarazpena egiten diote foru lege honetan ezarritako Jardueren eta Interesen Erregistroari, aurreko lerrokadan adierazitako epean. Erregelamenduz zehaztuko dira jakinarazpen horren norainokoa eta edukia.

2. Kargua utzi eta hurrengo hilabetetik aurrera, Nafarroako Gobernuo kideek eskubidea izanen dute hilero ordainsaria jasotzeko, karguak urte bakoitzean finkatuak dituen urteko lansari guztien ehuneko 80aren hamabiren batekoa, karguan emandako denboraren erdiz eskuratuko dutena, eta gehienez ere 24 hilabetez.

Idatz-zati honetan araututako ordainsariak jasotzea bateraezina da beste hauekin: kargurako berriro ere izendatuz gero onuradunari legezkoekin; lanpostu finko batean arituz gero, sektore publikoan nahiz pribatuan, lor litzakeenak; gizarte aurreikuspeneko edozein araubide publikotako pentsioak; aldi baterako lan kontratuen ondorioz jaso litzakeenak eta edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etortitako dirusarrerak. Aipatutako ordainsariak, pentsioak edo dirusarrerak, urte osokoak kontatuta, bigarren idatz-zati honen aurreko lerrokadan ezarritako ordainsariak baino txikiagoak balira, horien arteko aldea baizik ez dute jasoko. Erregelamenduz ezarriko da alderaketak ekonomiko hori egiteko prozedura eta, beharrezkoa bada, kasuan kasuko diru kopuruak Nafarroako Ogasun Publikoari itzultzeko.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzendari nagusiek eta haren menpeko erakunde publikoen zuzendari kudeatzaileek, kargua uztean, eskubidea izanen dute prestazio eko-

nomiko bat jasotzeko, aurreko 2. idatz-zatian ezarritako baldintza beretan, baina hileko diru kopurua zuzendari nagusiaren karguak urte bakoitzean finkatuak dituen urteko lansari guztien ehuneko 80aren hamabiren batekoa izanen da.

4. Artikulua honen bigarren idatz-zatian araututako prestazio ekonomikoa galarazi gabe, Nafarroako Gobernuo kideek, karguan eman duten denbora edozein dela ere, kargua uztean, behingoagatik bakarrik, hilabeteko lansaria jasoko dute.

5. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen funtzionarioek artikulua honetako 2. eta 3. idatz-zatietan aipatzen diren karguetako batean bi urte gora aritzen badira jarraian edo hiru urtez etenak eginda, osagarri pertsonal bat jasoko dute jardunera itzultzen diren unetik aurrera, dagokion mailako lansarien ehuneko 25ekoa. Osagarri hori urtero gaurkotuko da, oinarrizko lansari pertsonalak gaurkotzen diren portzentaje berean, eta zuzendaritza edo burutzako edozein lanpostu betetzeari dagokion lansarietara xurgatuko dute. Idatz-zati honetan aurreikusitako osagarri pertsonalaren esleipena behin baizik ez da aplikatuko funtzionarioaren ibilbide profesional osoan.

Idatz-zati honetan xedatutakoa aipatutako karguetakoren batean 1983ko urtarrilaren 1etik aurrera aritu diren funtzionarioei izanen zaie aplikatzeko, baina ordainsariei dagozkien ondorioak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu.”

### **Xedapen gehigarria**

**Bakarra.** Erregistroko ataletako datuak eskuratzeko bidearen aldaketa aplikatzea.

Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 9. artikulua, foru lege honetan ezarritako testuarekin, aplikatzeko izanen zaie foru lege honek indarra hartu ondoren aurkezten diren jardueren eta ondasunen eta eskubideen jakinarazpenei eta adierazpenei.

### **Xedapen iragankorra**

**Bakarra.** Sozietate publikoa zer den.

Nafarroako Ondareari buruzko foru legeak sozietate publikoen kontzeptua argitzen ez duen bitartean, foru lege honen ondorioetarako, halakotzat hartuko dira merkataritza sozietateak, Foru Komunitateko Administrazioaren, haren erakunde autonomoen edo Foru Komunitateko zuzenbide pribatuko ente publikoen partaidetza zuzeneko

nahiz zeharrekoa bada sozietatearen kapitalaren gehiengo absolutua denean.

#### **Xedapen indargabetzailea**

**Bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe gelditu dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta espresuki Nafarroako Gobernuak lehendakari-ohien eta kontseilari-ohien estatutua arautzen duen abuztuaren 14ko 180/1984 Foru Dekretuaren 3. eta 6. artikulua.

#### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Erregelamendu bidezko garrantzia.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

## **12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legean akats bat antzeman da gaztelaniazko testuan. Foru lege hori 2006ko azaroaren 23ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona zuzenketa:

40.4.a) artikulua honela esaten du: “.. cuando mos tengán naturaleza homogénea”

Eta honela esan behar du: “.. cuando los mismos tengán naturaleza homogénea”

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du eta presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean tramita dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz tramitatzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako, bere iritzia emateko zortzi eguneko epea daukala adieraziz.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren arabera, Nafarroak eskumen osoa du bere foru erakundearen osaketa, eskurantzak, antolakuntza, jardunbidea eta araubide juridikoa arautzeko.

Eskumen horien aplikazioaren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak ezarri zuen Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria dela, herritarren eskubide eta libertateak defenditzeko eta hobeki babesteko.

Era berean, erakunde hori arautzen duen legearen arabera, erakundearen titularrari ematen zaizkion prerrogatiba eta ahalmen bereziak hautagaiak Parlamentuko Osoko Bilkuran lortutako gehiengo kualifikatua oinarritzen dira; izan ere, gehiengo hori kargu publiko horrek hain eginkizun kontuzkoak betetzeko beharrezkoa duen zilegitasun demokratikoaren berrespena da.

Horrekin lotuta, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren funtzionamenduak agerian jarri du indarrean dagoen araudian aurreikus gabeko egoerak gerta daitezkeela, eta, gertatuz gero, horrek eragina duela arartekoaren ohiko jardunean, titularraren hautatzeko prozesuak abian jartzearen ondorioz.

Halatan, eta gertueneko ondorioei begira, gaur egungo titularraren agintaldia amaitzeaz dagoela kontuan hartuta, baliteke karguan hutsune nabaria gertatzea, ez baitago titularrak kargua uzten duen kasuetan ordezkatu duen arartekoaren ondokorik, 4/2000 Foru Legearen 9. artikuluan arautzen den moduan.

Egoera horri aurre egiteko, erakunde horri buruzko autonomia erkidego gehienetako legeek ezartzen dute behin agintaldia amaiturik, karguaren titularrak jardunean jarraituko duela hurrengo arartekoa hautatzeko prozesua amaitu bitartean.

Era berean, eta etorkizunari begira, ezin dira prozesu hauetatik at utzi hautaketa prozedura gehiegi luzatzeak ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak; hori dela eta, konponbide honen bidez, hau da, bere garaian Parlamentuaren onespren kualifikatua lortu zuen pertsona karguan mantenduta hurrengo titular berria hautatu bitartean, erakunde horrek berezkoak dituen eginkizunak bete behar dituen titularrak uneoro izan behar duen zilegitasuna bermatzen da.

Hori guztia dela eta, komenigarria da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzea. Hona testua:

#### **Artikulu bakarra.**

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 8. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letraren eta 3. eta 4. idatz-zatien edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak hurrengo arrazoi hauetakoren bat dela medio utziko du kargua:

../..

b) Ezarritako epea amaitzea. Horrek ez du eragotziko bere eginkizunetan jarraitzea, artikuluko honetako 3. idatz-zatian aurreikusitakoari jarraikiz.

../..

3. Kargua hutsik delarik, Nafarroako Foru Komunitateko hurrengo arartekoa izendatzeko prozedura hasiko da. Agintaldia bukatzen denean, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere eginkizunetan jarraituko du harik eta bere ondorengo karguaz jabetzen den arte.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren kargu uztea gertatu, edota hark behin-behineko ezintasuna izanen balu, eta Nafarroako Gorteek beste bat izendatu bitartean, behin-behinekoz, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ondokoak, halakorik balego, edota arartekoak proposatuta, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak ondorio horietarako hautatzen duen pertsonak beteko lituzke haren eginkizunak.”

#### **Azken xedapena**

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	